

Bederatzigarrena. Izena: Gonbidatuak

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Eginkizun bat interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen jardunean betetzeko behar den tratamendua.
- b) Tratamenduaren xedeak: Nafarroako Parlamentuak antolatutako ekitaldi instituzionaletara eta Nafarroako Parlamentuaren egoitzan egiten diren jardunaldietara gonbidatutakoen zerrendak.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: gonbidatutako pertsonak eta kargudun publikoak.
- d) Datu-kategoriak: Parlamentuak antolatzen dituen ekitaldi instituzionaletara eta jardunaldietara gonbidatutako pertsonen izen-deiturak eta helbideak.
- e) Hartzaileen kategoriak: ez dago lagapenik
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.